<i>Taldekoa</i>	<i>Benetako esperimntua</i>	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>	<i>4</i>
	<i>Ia-esperimntua</i>	<i>5</i>	<i>6</i>	<i>7</i>	<i>8</i>
	<i>Konparatiboa (ex post facto)</i>	<i>9</i>	<i>10</i>	<i>11</i>	<i>12</i>
	<i>Asoziatiboa (korrelaziozkoa)</i>	<i>13</i>	<i>14</i>	<i>15</i>	<i>16</i>
	<i>Deskribatzailea</i>	<i>17</i>	<i>18</i>	<i>19</i>	<i>20</i>
<i>Subjektu bakarrekua</i>	<i>Manipulatiboa</i>	<i>21</i>	<i>22</i>	<i>23</i>	<i>24</i>
	<i>Ez-manipulatiboa</i>	<i>25</i>	<i>26</i>	<i>27</i>	<i>28</i>

3.4. Adierazgarritasuna.

Ikertzaileak populazio osoarentzat zerbait adierazgarri bilatzen du. Baina populazio osoa ezin dezake ikertu; haren zati bat, lagin bat aztertu behar du. Problema honi aurre egin behar dio: ikerketan populazioa ordezkatzeko duen laginak egoki eta ahalik eta ondoen islatu behar ditu populazioaren ezaugarriak. Lagina populazioarekiko adierazgarria dela esaten dugu. Horretarako ezinbestekoa da populazioaren definizio operazionala izatea. Beste era batera esanda, ikerketaren unibertsoa, zeini dagokion eta zeini ez, ondo mugatu behar dugu. Alferrikakoa izango litzateke bularretako minbiziak gizonezkoengan sortzen duen herstura ikertzea, batez ere, gizonezkoek bularretako minbizi izaten ez dutelako. Hau da, horrelako ikerketa batean gizonezkoak ez lirateke izango populazioko kideak.

Zorizko hautaketan, probabilitate-legeen eremuan murgiltzen gara ezinbestean. Ez da edonolako hautaketa, prozedura zehatz eta arautua baizik. Funtsean, subjektu guztiek eta bakoitzak gure laginean izateko probabilitate-maila bera daukatenean, zorizko laginketa (aukeraketa) dela esaten dugu.

Lagina populazioarekiko adierazgarria dela esaten dugu, populazioa egoki islatzen duenean.

3.5. Hipotesi estatistikoak.

Hipotesi estatistikoak bi dira:

1) **Hipotesi nulua (H0)** → Kontserbadoreak, aldaketa eta desberdintasun eza. Hipotesi nulua (H0): Funtsean onartu edo ukatu nahi dugun hipotesi estatistikoa da. Test estatistikoak normalean kontserbadoreak direlarik, hipotesi nulua aztergaietan aldaketarik ez dagoela adierazi ohi du. Estimagailuaren laginketa-banaketa H0-aren arabera eratzen da, testa gero gauzatzeko. Hipotesi nulua, azkenik, hipotesi bakuna izan ohi da.

2) **Ordezko hipotesia (H1)** → Desberdintasunak daude. Ordezko hipotesia (H1): Hipotesi nuluari kontrajartzen zaion eta aldi berean beraren osagarria den hipotesi estatistikoa da. Honela idatz dezakegu:

$p(H0) + p(H1) = 1$ → Ordezko hipotesia hipotesi konposatua da, beraz.

Hipotesi-testa: hipotesi estatistikoaren inguruan laginketa-banaketari atxikiz eta probabilitate-legeen menpe egiten den eraketa estatistikoari deritzo.

Hipotesi-testaren oinarria definitutako hipotesietan datza, beraz. Aurrenik hipotesi nulua (H0) zehazten dugu, hipotesi nulua arabera ordezko hipotesia (H1), eta azkenik, I. motako erroreari dagokion probabilitatea (α) finkatu ondoren, testari ekiten diogu.

Probabilitate-legeen menpe gaudelarik, bada zoriak dakarren arriskua edo errorea. Oro har, hipotesi-testei atxikitako erroreak bi motatakoak dira: I. Motako errorea eta II. motako errorea. I. motako errorea H0-a populazioan benetakoa dela suposatuz berori baztertzean datza. II. motako errorea, berriz, H0-a populazioan faltsua izanik, berori onartu eta ordezko hipotesia ukatzean datza.

3.6. Balidezia: barnekoa, kanpoko, konstruktua eta ondorio estatistikoa.

Ondo neurtzeko eta datuak baliagarritasuna izan dezaten hurrengo lau balidezia motak bete behar dituzte.

Barne balidezia: Aldagai askeak menpeko aldagaian izan dezakeen eraginari buruz ondorio egokiak lortzeko probabilitateari dagokio. Emaitzak aldaketak edo taldeen arteko desberdintasunak tratamenduaren ondorio bezala soilik azal daitezke. Hau da, bestelako azalpen edo hipotesi lehiakide posible guztiak bazter daitezke.

Kanpo balidezia: Ikerketa zehatz batean behatu den erlazio kausala, erlazio hori egiaztatzeko erabili den egoeratik kanpo orokortzeko posibilitateari dagokio. Emaitzak beste subjektu, testuinguru, une eta jatorrizko ikerketatik desberdinak diren beste ezaugarri batzuetara orokor daitezke.

Konstruktua balidezia: Zaila izaten da, baina beharrezkoa. Bi aldagaien arteko erlazio kausalaren interpretazio teorikoari (Kontzeptuak nola definituta dauden eta bat egiten duten guk planteatutako hipotesiekin zein datu bilketekin. Koherentzia eta logika bat jarraitu behar dutelako) dagokio. Tratamenduaren aldaketaren eragilea dela suposatuz, tratamenduaren zein alderdi zehatzek sortzen duen eragina. Beste era batera, zein da eraginaren itzalean dagoen erreferente kontzeptuala.

Ondorio estatistikoa: Bi edo aldagai gehiagoren arteko ustezko kobariazioari buruzko inferentziak egiteari dagokio. Zein da efektuaren tamaina eta zein zorrotasun maila dauka ikerketak bi edo aldagai gehiagoren arteko kobariazioa antzemateko kobariazio hori ematen bada.

Ondorio estatistiko aurretikoak: Normaltasuna, bariantzen homogeneitatea eta behaketen arteko askatasuna.

RECOMENDACIONES PARA AUMENTAR LA VALIDEZ DE UN DISEÑO DE INVESTIGACIÓN

Validez Interna	Validez Externa	Validez de Constructo	Validez Estadística
Creación de varios grupos de comparación equivalentes al de observación Efectuar varias mediciones Controlar todo suceso externo e interno a la investigación que pueda afectar a sus resultados	Selección de las unidades de la muestra mediante procedimientos aleatorios Formar grupos heterogéneos de unidades de observación que incluyan varios contextos temporales y espaciales Replicación de los estudios/experimentos El Meta-análisis (comprobación de la consistencia de los resultados)	Delimitación clara y precisa de los conceptos teóricos Operacionalización múltiple de los conceptos Empleo de varias técnicas de obtención de información	Aumentar el tamaño de la muestra Formar grupos internamente poco heterogéneos Fuente: Cea, 1996, p.121

3.7. Fidagarritasuna

Aldagai baten neurriak iraunkorrak direnean, emaitza berak lortuko dira erabilitako indikadoreekin egoera ez bada aldatzen.

Fenomeno iraunkor baten neurketa errepikatuak, gizabanako eta neurketa tresna desberdinen bitartez baita leku eta denbora desberdinetan egin ala antzeko emaitza izango dituen.

3.8. Datuen bilketarako teknikak:

- Erregistro zuzeneko teknikak (behaketa teknika)
 - Tresneria lagungarria erabili behar izaten da giza behatzaileen trebetasuna gehitzeko edo osatzeko (bideo kamerak, grabagailua, etab)
 - Behatzaileak modu egokian kodifikatu behar ditu datuak.
- Erantzuna eskatzen duten teknikak (Auto-informe neurriak)
 - Galdeketak, elkarrizketak, eta gaitasunak, jarrerak etab neurtzen dituzten testak.
 - Auto-informe teknikak subjektuen zintzotasun eta beren buruaren ezagutzaren mende daude.

3.gaiako pdfko 8.orrialdetik aurrera taula grafikoak

**RELACIÓN ENTRE LAS FASES DE UNA INVESTIGACIÓN
Y EL ESQUEMA GENERAL DE UN PROTOCOLO**

FASES DE UNA INVESTIGACIÓN	ESQUEMA GENERAL DEL PROTOCOLO DE ESTUDIO
Fases Preliminares	
Conocimiento actual sobre el tema	Revisión bibliográfica
Pertinencia del estudio	Justificación del estudio
Aspectos éticos	
Hipótesis conceptual	Objetivos del estudio
Planificación y diseño	
Elección del diseño	Diseño Básico: tipo de estudio, si existe o no apareamiento, asignación aleatoria de los sujetos a los grupos de estudio, o técnicas de enmascaramiento (placebo, técnicas «ciego»)
Población de estudio	Crterios de selección Consentimiento informado Tamaño de la muestra Procedencia de los sujetos Técnica de muestreo o reclutamiento Grupo control
VARIABLES de estudio	Definición del factor de estudio y del criterio de evaluación Selección y definición de las variables Fuentes de información Técnicas y escalas de medida Hoja de recogida de datos
Organización	Duración del estudio Pauta de seguimiento Responsabilidades de los investigadores Recursos humanos, técnicos y económicos necesarios Aspectos legales
Seguimiento	Control de la pauta de seguimiento Tratamiento y minimización de las pérdidas Control y cumplimiento Control de la calidad de los datos
Estrategia de análisis	Procesamiento de los datos Estrategia prevista de análisis Tests estadísticos previos
Realización Análisis Interpretación Comunicación	

Fuente: Argenteo & Jiménez, 1995

4. Gaia. Kultura eta gizarte psikologia

Páez, D., Fernández, I., Ubillos, S., Zubieta, E. (2003). *Psicología social, cultura y educación*. Madrid: Pearson/Prentice-Hall.

4.1. Kulturaren definizioa

Psikologo sozialak eta antropologoak bat datoz honako hau esatean: kultura bizitzeko era bat da. Gizarteak pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko eskuratutako ereduak osatzen dute kultura (Klineberg, 1954/1988; Ember eta Ember, 1997; Kottak, 1994; Bodley, 1997).

Kulturaren alderdi *objektiboaren* osagai nagusiak ekoizpeneko eta kontsumoko ereduak eta gizarte bakoitzeko ezaugarri ekologikoak dira (Triandis, 1995).

4.2. Kultura, portaera eta sineste eredu gisa

Kultura bakoitzeko portaerek eta jarduteko arauak estilo eta erregularitasun jakin bat izaten dute. Hala ere, gizarte jakin bateko portaera erregularren eredu guztiak ez dira balioespen bidezko hautaketan ondorio izaten: esate baterako, jendeak azkartasuna eta ongi gidatzea balioesten baditu ere, auto ilarak izaten dira. Eredu erregular kolektibo hori banakako erabaki arrazoizkoen ondorio taldekatua eta gaiztoa ere bada; izan ere, erabaki horiek batzearen ondorioz nahi direnen aurkako ondorioak jazotzen dira. Amaitzeko, egoeraren arabera estutzeak (ekologikoak, ekonomikoak, aginte egiturenak, komunikaziozkoak eta lanaren banaketan) portaera ereduak aldatzea eragiten dute, zenbait balio kultural gorabehera edo balio kultural jakin batzuei aurka eginez. Ohiko adibide bat gerra edo emigrazio garaian eta genero bereizkeria azpimarratzen duten kultura patriarkaletan emakumeak lan munduratzeko da.

Historia komuna eta egitura soziala duten gizabanakoen talde batek komunean dituen ezagueren multzoa da kultura (Triandis, 1995; Markus, Kitayama eta Heiman, 1996). Hortaz, jarduteko arau eta orientabide jakin batzuk aintzat hartzearen eta betetzearen ondorioz jazotzen diren portaera ereduez arituko gara kulturari buruz hitz egitean. Gainera, balio komun horiek funtsezko zeregina izango dute gizabanakoen funtzionamendu psikologikoari dagokionez, eta balio nagusiak testuetan eta portaera kolektiboetan islatuko dira.

Antropologia sinbolikoaren eta ezagutza mailakoaren arabera, herrialde edo talde bateko kideek komunean dituzten eta portaerak bideratzen dituzten jarreraren, arauen, sinesteen

eta balioen multzoak *kultura subjektiboa* osatzen du. Multzo horretan honako hauek barne hartuko dira:

sinesteak edo denotaziozko ezaguera (*zer den egia* adieraziz), jarrerak eta balioak edo konnotaziozko ezaguera (*zer den ona eta desiragarria* adieraziz), arauak eta rolak (elkarreraginetarako, oro har, eta jarrera sozialetarako, bereziki, egokitzen jotzen diren portaerak, emozioak eta ezagutzak), eta prozeduren gaineko ezaguera (inplizituki ezagutzea zereginak nola betetzen diren).

Eskema moduan eta TRIANDIS-en arabera (1994), kultura subjektiboaren osagaiak honako hauek lirateke:

- a) *Sinesteak*: zer den, nola izendatzen den (kategoriak, hizkuntza, sinesteen egitura) eta nola ebaluatzen den (jarrerak).
- b) *Rolak*: egitura sozialean kokaleku jakin bat duten gizabanakoengandik espero diren eta gaitzesten diren portaerak.
- c) *Arauak*: kultura jakin bateko kideek izatea nahi den eta nahi ez den portaerak, sinestak eta emozioak arautzen dituzten arauak eta itxaropenak.
- d) *Balioak*: bizitzako helburu eta printzipio garrantzizkoak, pertsonen desiragarria, ona edo ederra zer den balioztatzeko erabiltzen dituztenak, eta eguneroko portaerentarako gida gisa edo gauzak nolakoak izan behar diren jakiteko baliatzen direnak (Triandis, 1994).

Balioak garrantzizkoa eta desiragarria denaren abstrakzioak dira, eta ekintzak neurtzeko eta bideratzeko balio dute. Portaeren esanahia, aldiz, asko aldatzen da kulturaren arabera. Esate baterako, kultura jakin batean gizonen arteko ukitze fisikoaren maiztasuna handia izan daiteke eta esanahi homo-erotikoa izan dezake (Polinesiako leku batzuetan, adibidez), eta beste kultura batean maiztasun hori handia izan daiteke, eta era berean, homosexualitatea erreprimi daiteke (Afrikako iparraldean, adibidez). Portaeren esanahia oso aldakorra denez, joera nagusiak azaltzeko hobe da testuinguruak gainditzen dituzten eraikuntza abstraktuak aipatzea (arauen eta balioen kasuan bezalaxe).

4.3. Kulturaren osagaiak

Kultura ezagutzako osagaien multzoa da: denotatiboa (*zer den*), konnotatiboa (izan beharko lukeena) eta pragmatikoa (gertaerak nolakoak diren). Adierazle horiek historia komuna duten eta egitura sozialeko partaide diren banakoen taldeak partekatzen ditu. Hori dela eta, kultura guztietan bereiz ditzakegu ikurrak, arauak, balioak eta sinismenak. Atal honetan alderdi horiek sakontzen saiatuko gara, bide batez gai horiekin lotutako ikerketak aurkeztuta.

- *Sinboloak*

Gizakiok ez dugu gure inguruko mundua beste izaki bizidun batzuek bezala ikusten edo esperimentatzen. Guk berezko errealitatea sortzen dugu: esanahiz betetako mundua. Eta, horretarako, bizitza sozialeko elementuak (keinuak, begiradak eta abar) ikur bihurtzen ditugu; hau da, kultura partekatzen duten guztientzat esanahi jakina edo espezifikoa duen guztia. Ikurrak horrenbeste erabiltzen ditugunez eta horiekiko dugun mendekotasun maila horren handia denez, ez dugu sekula horietan pentsatzen, ziurtzat ematen ditugu. Baina gurearen ezberdina den gizartera bisita egiten duenean, orduan konturatzen gara horrek duen garrantziaz. Baldintza horietan jasaten dugu kultura talka deitzen dioguna; hori gurearen ezberdina den gizartean erabiltzen dituzten ikurren eta kultura mailako jardueren esanahia behar bezala interpretatzeko dugun ezintasuna edo sorpresa baino ez da.

Hori dela eta, *kultur jarduerak (ikus daitezkeenak)* izaera sinbolikoa duten adierazpen ugari biltzen dituzte; horien artean, ikurrak nabarmendu behar dira; hau da, hitzak, keinuak, irudiak edo objektuak. Ikus daitekeen beste kultur jarduera bat heroiena da: bizirik edo hilda dauden pertsonak, benetakoak edo alegiazkoak (jarrera ereduak), eta errituak: jarduera kolektiboak (besteei agur egiteko edo errespetua agertzeko modua, adibidez, gizarte edo erlijio mailako zeremoniak, bilera politikoak, negozio bilerak eta abar).

Bestalde, hizkuntza kultur unibertsoko oinarrizko faktorea da. Gizarte bateko kideei beren artean komunikazioa izatea ahalbidetzen dieten ikurren sistema dela esan dezakegu. Sinbolo edo ikur horiek idatzizkoak edo ahozkoak izan daitezke; hori dela eta, munduko alfabetoen kopuru handia ikusita, asko aldatu daitezkeela esan dezakegu. Munduko txoko guztietan, hizkuntza da kultur erreprodukziorako mekanismorik garrantzitsuena eta belaunaldiz belaunaldi kultura transmititzea bermatzen duena.

Hitz gutxitan esanda, ikurrei esker, pertsonak gizartea ulertu eta beren buruaren inguruan zabaldu nahi duten irudia eman dezakete. Horrekin lotuta, **2. taulan R. Kapuscinski-ren “Ébano” liburuko laburpena agertzen da. Agurtzeko era ezberdinak eta horien sinbologia erakusten ditu.**

- *Agurtzeko era ezberdinak*

“En una estancia me recibió efusivamente, como si hubiese esperado mi visita desde hacía mucho tiempo, Kwesi Amu.... (Gahna, Kumasi)...El curso y la atmósfera de un encuentro tienen gran importancia para el futuro de las relaciones. Por eso las gentes de aquí prestan mucha atención a la manera de saludar al visitante. ... hay que mostrarse viva y extraordinariamente contento y cordial. De modo que primero damos la mano. Pero no de una manera formal, distante y mustia sino todo lo contrario: tomando un

gran y enérgico impulso, como si en lugar de estrecharle la mano al visitante quisiéramos arrancársela. Si a pesar de ello el visitante conserva su brazo intacto y en su lugar, tal cosa quiere decir que, conociendo el rito y las reglas del saludo, él también, por su parte, ha tomado un gran y enérgico impulso y dirige su mano veloz hacia la nuestra, no menos veloz. Ambas extremidades, cargadas de una energía enorme, se encuentran a medio camino y al chocar la una contra la otra con terrible ímpetu, reducen, incluso a cero, las dos fuerzas opuestas. Al mismo tiempo, mientras nuestras manos corren raudas y veloces al mutuo encuentro, sacamos de nuestro interior la primera cascada de risa, fuerte y prolongada. Esto significa que estamos encantados de vernos y que tenemos una actitud muy positiva hacia la persona con la que acabamos de encontrarnos. Ahora empieza la larga lista de preguntas y respuestas de rigor, tales como: “¿Qué tal? ¿Estás bien de salud? ¿Cómo están tus familiares? ¿Todos sanos? ¿Y el abuelo? ¿Y la abuela? ¿Y el tío?”, etc., porque aquí las familias son grandes y ramificadas. La costumbre obliga a sellar cada respuesta positiva con sucesivas cascadas de risa fuerte y espontánea, que, a su vez, deben provocar otras cascadas, todavía más sonoras y homéricas, en la persona que hace las preguntas...En la calle, a menudo vemos a dos (o más) personas desternillándose de risa. Ello no significa que se estén contando chistes. Sencillamente, se saludan. Y cuando la risa se desvanece, eso quiere decir que el acto de saludarse ha concluido y que ahora toca pasar al meollo de la conversación o que, pura y simplemente, los contertulios han parado durante un rato para dejar descansar a sus cansadas entrañas” (*Fuente: Kapuscinski, 2000, pp. 36-37*)

Un ejemplo interesante de la fuerza de los símbolos lo constituye la polémica en torno al velo o Hijab (pañuelo) musulmán. El conflicto surgió en Francia el año 1989 cuando unas niñas se negaron a quitarse el velo para acudir a la escuela francesa laica y se extendió entre las jóvenes francesas musulmanas. Así, mientras se prohibía el uso del pañuelo, se permitía a las chicas católicas llevar cruces y otras insignias religiosas, o a los judíos llevar el kipa. Se argumentaba que el uso del Hijab era un uso ostentoso del símbolo religioso (Parekh, 2005, p. 367). Posteriormente el conflicto se planteó en España, en uno de los casos era curioso ver la imagen de unas religiosas católicas con el velo que prohibían el uso del pañuelo a una niña musulmana.

- *Arauk*

Txinan eta Errusian, lankide batek zenbat irabazten duen jakin nahi dutenean, zuzenean galdetu ohi dute. Mendebaldeko Europan, norbaiti zenbat irabazten duen galdetzea lotsagabekeriartzat hartu ohi da. Adibide hori baliagarria izan daiteke *arauak gizarteak hura osatzen dutenen jarrera arautzeko abiapuntutzat hartzen dituen legeak eta itxaropen sozialak direla* ulertzeko. Arau batzuk gauza jakin batzuk debekatzen edo galarazten dituzte. Gizarte batzuetan, adibidez, ezkonduetako emakumeak ezin du kalera bakarrik atera. Beste arau batzuk, aldiz, arauemaileak dira; hau da, egin beharrekoa zer den adierazten dute.

Kulturetan, ohikoa da aldi berean alderdi kontraesankorrak gertatzea, egoera gatazkatsuak modu arautzailean erregulatzeko saiatzen baitira. AEBko kultura indibidualistak, esate baterako, norberaren independentzia balioesten du; hala ere, aldi berean, talde eta harreman sozial ezberdinetara egokitzen irakasten die pertsoneri. Hori dela eta, indibidualismoa ingurune sozialaren iritzirako eta egokitzapenerako joera handia izatearekin batera agertzen da (Bock, 1994, 93. or.).

Arau kontraesankor horiek (indibidualismoa *versus* ingurune sozialera modu malguan egokitzea) agerian geratzen dira kultura anglosaxoi indibidualistako pertsonen auto-monitorajearen Asiako kolektibistek baino puntuazio altuagoa lortzen dutela ikusita. Auto-monitoraje altuko pertsonen ezaugarri nagusia jarreraren aldakortasun handia izan ohi da, ingurune sozialera egokitzeko duten joera dela eta. Hori dela eta, auto-monitoraje altuko pertsonen "joaten zaren tokian, egin ikusten duzuna" leloaren arabera funtzionatzen dute (Church, 2000).

Azkenik, kultura kolektibistetako pertsonen statuseko arauak arreta handiagoz jarraitzen dituztela uste izan da modu nahikoa estereotipikoan eta eurozentrikoan, konformismo handiagoa baitute. Dena den, kultura kolektibistetan atxikitako taldeek duten garrantzia dela eta, pertsonen jende gutxiagorekin izaten dituzte eraginak eta horien harremanak luzeagoak izaten dira. Gainera, jarrera publikoak arau argiak betetzen ditu, jarrera ez da oso ohikoa eta irudi pribatuan eragin txikiagoa izaten du. Aldiz, kultura indibidualistetan pertsonen harremanak izan behar dituzte talde ezberdinetako pertsonekin eta jarrera publikoak benetako norbere buru pribatuaren dierazpenak izan beharko lituzke (Goodwin, 1999).

- *Balioak eta sinesmenak*

Soziologoek munduaren aurreko jarrerei balio deitzen diete; kulturalki zehaztutako ereduak dira eta horien bidez, pertsonen desiragarria, ona, txarra, ederra edo itsusia zer den ebaluatzen dute eta gizarteko bizitzarako gidalerroak izan daitezke. Kulturaren ikuspegitik, balioak gauzak nola egin behar den azaltzen duten enuntziatuak dira. Psikologia Sozialerako, balioak banakoaren eta gizartearen arteko lotura egonkorra eta integrala erakusten duten konstruktu psikosozialak dira (Ros, 1993).

Oro har, balioak sinesmenetarako oinarri diren printzipio zabalak eta orokorrak dira. Sinesmenak, aldiz, pertsonen ziurtzat hartzen dituzten adierazpen espezifikoak dira. Balioak gauzek nolakoak izan behar duten adierazten duten proposamen abstraktuagoak dira; aldiz, sinesmenek gai espezifikoagoak lantzen dituzte eta horien egiazkotasunari edo gezurrari buruzko iritzia ematen da. Rokeachen (1973) definizioaren arabera, balioak banakako helburuak dira (elkarri lotutako sinesmen pertsonalak), modu hierarkikoan egituratuta daude eta barnetik trinkoak dira.

Kultur balioak arauemaileak dira; desiragarria dena izendatzen dute edo ustez errealitate nola bihurtuko den azaltzen dute. Gizarte bateko idealak azaltzen dituzte. Baina ideal horiek beste batzuekin batera egon daitezke pertsona gehienek bete ez arren. Espainian joan den mendeko 50eko hamarkadan ezkontza aurreko harremanak debekatuta zeuden arren, adibidez, ezkontza aurreko haurdunaldiak ugari ziren. Duela gutxi, 2005an, Khushboo izeneko Indiako aktoreak tamil biztanleriak eragindako jazarpena eta erasoak jasan zituen (Tamil Nadukoek, herrialdeko hego-ekialdean dagoen tokioek, eragindakoa). Ordura arte idoloa izandakoa jazarpena jasaten hasi zen (aktorea eta haren familia), hau esanez egin zituen adierazpenak zirela eta: *"gizarteak gainetik kendu beharko luke emakumeak ezkontzara birjina iritsi beharko lukeela dioen pentsaera atzerakoia [...]; emakumeek ezkondu aurretik sexu harremanak izatea erabakitzen badute, nahi gabeko haurdunalditik eta HIESetik babestu behar dute"*. Emakume gazteen % 20ek eta % 25ek ezkontza aurretik sexu harremanak izaten dituzte Indian. (El País, 2005, 11. or.).

Balioak eremu guztietan aplikatzen dira arau sozial bihurtzen direnean. Adibidez, familia baten eremuan, statusaren diferentziak legezkatat jotzen dituen kultura (hori balio soziala da) agerian geratuko da helduek haurrak kontrolatzen eta zigortzen dituzten maila altuan; hau da, hori rolaren jarrera da (Páez eta Zubieta, 2003).

Gaur egun, garatutako herrialdeek berdintasun sozialeko balio eta balio unibertsalista berak dituzte; hau da, arauak mundu osoan berdin-berdin aplikatu daitezkeela eta herritar guztiek eskubide berak merezi dituztela uste dute. Baina Europa osoak egun bizi duen gatazka garrantzitsuenetako bat berdintasuna aniztasunarekin nola uztartu da. Herrialde bakoitzak, adibidez, erlijio askatasuna eta erlijio hezkuntza desberdin aplikatu ohi du. Britainia Handiaren kasuan, esate baterako, Estatuak eskola anglikanoak, katolikoak eta juduak finantzatzen ditu, baina duela oso gutxi arte uko egin dio eskola musulmanak finantzatzeari (eskolak egotea baimentzen du, baina ez ditu finantzatzen). Frantzia, Gobernuak diru laguntza handiak bideratzen ditu eskola katoliko erromatarren sistema pribatura, baina uko egin dio eskola juduei, musulmanei edo beste eskola kristau batzuei finantzaketa emateari. Gauza bera gertatzen da Espainiaren kasuan ere; erlijio ikastetxeak finantzatzen dituzte eta derrigor eskaintzen dute erlijio katolikoa, nahiz eta eskaintza hori ez den orokorra gainerako erlijio sinesmenen kasuan (Parekh, 2005).

4.4. Kulturak definitzen dituzten balioen alderdiak

- Hofstederen Eredua

Hofstede-ren (1991) arabera, taldeak elkarrengandik bereizten dituen adimenaren programazio kulturala da kultura. Egile horrek 53 kultura talderekin egin zuen lan balio kolektiboak aztertzeko, eta azterketa horretan oinarrituta kulturak bereizten dituzten alderdiak (ikus 1. Taulako ezkerreko zutabea) hainbat direla aldarrikatu zuen. Gainera,

alderdi horiek bat datoz Inkeles eta Levinson-en azterketaren arabera gizarte bakoitzak konpondu beharreko arazoekin (Hofstede-k (1991) aipatutakoa).

1. Hofstede-ren Kultura Alderdiak

1. Taula: Hofstede-ren Kultura Alderdiak

Kultura Alderdiak	
Gizarte guztien oinarritzko arazoak	Hofstede-ren Balioak
1. Agintearekiko harremana	Boterearekiko distantzia
2. Norberaren ikusmoldea: a) gizabanako-talde harremana b) gizon/emakume desberdintasunak	a) Indibidualismoa/kolektibotasuna b) Maskulinitasuna/feminitatea
3. Nola egin aurre gatazkari? Nola kontrolatu erasoak eta emozioen adierazpena?	Ziurgabetasuna murriztea

Inkeles eta Levinson-ek (1969, Hofstede-k (2001) aipatutako) adierazi zuten, kultura guztiek aurre egin beharreko oinarritzko arazoak hauek dira:

- a). agintearekiko harremana.
- b). ni-aren edo pertsonaren ikusmoldea (pertsonaren eta gizartearen arteko harremana, eta maskulinitasunaren eta feminitatearen ikusmoldea barne hartuta).
- c). gatazkak eta horien konponketa (adierazpena versus emozioen inhibizioa, erasoen kontrola barne hartuta).


Eredu horri jarraituz, herrialde bakoitzeko balio nagusiak ordenan jartzeko baliagarriak diren lau alderdi identifikatu zituen enpirikoki Hofstede-k (1991) balioei buruzko lanean: *Boterearekiko distantzia, Indibidualismoa/Kolektibotasuna, Maskulinitasuna/Feminitatea eta Ziurgabetasuna Saihestea.*

1) *Boterearekiko distantzia*: talde bakoitzean botere txikiak duten kideek botere desberdintasunak zer neurritan onartzen dituzten azaltzen du. Danimarka eta Zeelanda Berria boterearekiko distantzia txikia duten herrialdeak dira, eta Malaysia eta Guatemala, berriz, boterearekiko distantzia handia duten herrialdeak.

2) *Indibidualismoa-Kolektibotasuna*: lehentasuna pertsonari edo taldeari (familia zabala sarritan) ematea adierazten duen alderdia da. Guatemala, Indonesia eta Taiwan herrialde kolektibistak dira, eta Estatu Batuak eta Mendebaldeko Europako herrialdeak, berriz, indibidualistak.

3) *Maskulinitasuna-Feminitatea*: kultura jakin batek gizonen eta emakumeen artean egiten duen gehienezko bereizketa maila adierazten duen alderdia da. Kultura maskulinoek generoari dagokionez estereotipikoak diren portaerak eta balio maskulino nagusiak (arrakasta, dirua, lehia eta asertibotasuna, esate baterako) nabarmentzen dituzte. Kultura femeninoek, berriz, ez dituzte generoaren araberako rol desberdintasunak nabarmentzen, ez dira lehiakorrak eta lankidetzaz eta ahulak zaintzea aintzat hartzen dituzte. Japonia, Austria eta Mexiko herrialde maskulinoak dira, eta Eskandinaviako herrialdeak, Herbehereak, Txile eta Costa Rica, berriz, femeninoak.

4) *Ziurgabetasuna saihestea*: egoera anbiguoen ondorioz jendeak sentitzen duen mehatxu maila adierazten duen alderdia da (pertsonak mehatxu horiek saihesten ahalegintzen dira, kode eta sineste zorrotzen bidez). Ziurgabetasuna saihesteko ahalegin handiak egiten diren herrialdeak (Grezia edo Portugal, esate baterako) segurtasunaren bila ibiltzen dira, eta ziurgabetasunarekiko intoleranteak dira. Ziurgabetasuna saihesteko ahalegin txikiak egiten duten herrialdeak (Jamaika edo Danimarka, esate baterako) lasaiagoak dira, arriskua gehiago onartzen dute, eta toleranteagoak dira.



- **Triandisen Eredua: Indibidualismoa-Kolektibotasuna** (bertikala eta horizontala)

Harry C. Triandisek indibidualismoa eta kolektibismoa hierarkiarekin bateratzen dituen tipologia proposatzen du; hau da, dimentsio bertikal-horizontala. Kontzeptu horiek osatzen dituzte bi dimentsiorik garrantzitsuenak eta egiaztatuenak, eta kulturak zehazteko balio dute (Triandisen teoriaren garapena modu zehatzagoan biltzen duen azalpena ikusteko, Gouveia kontsulta daiteke, 2001). Jarraian eta, labur-labur, Triandisek 4. taulan proposatutako tipologia agertzen da laburtuta.

Taula. *Indibidualismoa-Kolektibotasuna* (bertikala eta horizontala)

Indibidualismo Horizontala: BAKARRA	Norbere tokia izan. Norbere identitatea Besteekiko ezberdina izatea
Indibidualismo Bertikala: LORPENERA Bideratua	Garaipena baloratu Hedonismoa.
Kolektibotasun Horizontala: KOOPERATIBOA	Taldeko berdinekiko erlazioetan atentzia jarri Taldeko armonia baloratu
Kolektibotasun Bertikala: BETETZEA	Ahalmenarekiko Errespetoa eta obedentzia

- **Schwartzen Balore Indibidualak**

Shalom H. Schwartzek (1994) egindako ikerketak kulturen ezaugarri diren giza balioen inguruko informazioa biltzen du. Egile horrek balioak eremu indibiduala eta kolektiboa aintzat hartuta aztertzeaz gain, horien egitura unibertsala proposatzen du. Balioen tipologia horien inguruko deskribapen zehatzagoa eta eguneratuagoa lortzeko (gaztelaniaz), Ros eta Gouveiak idatzitako bilduma biltzen duen liburua kontsulta dezakegu (2001): “Giza balioen Psikologia Soziala”.

Schwartz eta Bilsky (1987, 1990). Bi egile horien ustez, giza balioek egitura unibertsala dute. Balioak motibazio moten arabera sailkatzen dituzte; balio bakoitzak adierazten ditu erdietsi beharreko helburuak eta xedeak, eta lortu nahi den helburuaren arabera pilatzen dira. Jarraian agertzen dira oinarrizko hamar motibazioak. Horri esker, motibazioak, era berean, oinarrizko lau helburutan eta hiru orientazio nagusitan bil daitezkeela ikusiko du irakurleak. Eskala modu zehatzagoan berrikusi ahal izateko, lan hau kontsulta daiteke: Zlobina en Páez et al., 2003, 73-82. or.

10. Motibazioa moetak:

1. Ahalmena: Gizarte kokaera eta ohorearen bilakuntza
2. Lorpena: Norbere arrakastaren bilakuntza
3. Hedonismoa: Pertsonarentzat plazerra eta gratifikazio sentsuala
4. Estimulaketa: kitzikapena, barietatea, nobedadea eta bizitzan erronkak
5. Auto-zuzendaritza: Pentsamenduan eta akzioan independentzia
6. Unibertsalismoa: ulerkuntza, estimu, tolerantzia eta babesa guztion ongizatea eta izadiarentzat
7. Onginahia: Gertukoengatik ongizatearekiko ardura
8. Ohitura: ohituren eta erligioen errespetua
9. Adostasuna: akzioen mugapena
10. Segurtasuna: Segurtasuna, armonia eta egonkortasunaren bilakuntza gizartean

Helburu orokorrak: Motibazio moten batuketan honen arabera:

1. Traszendentzia = Unibertsalismoa eta Onginahia.
2. Norbere promozioa = Ahalmena, Lorpena eta Hedonismoa.
3. Kontserbazioa = Ohitura, Adostasuna eta Segurtasuna.
4. Aldaketari irekia = Estimulazioa eta Auto-zuzendaritza.

Azkenik, Schwartzek honela sailkatzen ditu balio pertsonalak: orientazio indibidualistakoak (balio hauek osatzen dituztenak: boterea, lorpena, hedonismoa, estimulazioa eta auto-zuzendaritza); orientazio kolektibistakoak (borondate ona, tradizioa eta adostasuna) eta orientazio mistokoak (segurtasuna eta unibertsalismoa).

LABURPENA

La cultura, según la disciplina que la aborde, posee varias acepciones. Así, los psicólogos sociales coinciden en definirla como un conjunto de patrones socialmente adquiridos de pensamiento, sentimiento y acción. Además, cuando se habla de cultura ha de tenerse en cuenta tanto el componente objetivo como el subjetivo. Se han mostrado diferentes modelos sobre valores que ayudan a entender las diferencias culturales, estos son: el de Hofstede, Triandis, Schwartz, Fiske, Trompenaars e

Inglehart. El lector también ha podido examinar algunos de los factores más relevantes, ecológicos, socioeconómicos y macro-sociales que se vinculan a la variabilidad cultural en las investigaciones transculturales. A continuación, se ha dedicado un apartado a las consideraciones sobre el análisis teórico y metodológico de la cultura. Así, hemos de tener en cuenta que no se puede equiparar cultura a nación. Además, la cultura evoluciona y, por lo tanto, no es estática. Por último, se hace mención a los aspectos *emic* y *etic*. También se ha mostrado el individualismo como un concepto complejo. Así, con el objeto de dar luz a dicho fenómeno, se ha analizado el individualismo-colectivismo en función de las actitudes individualistas-colectivistas y de la imagen de sí independiente- interdependiente, ya que pensamos que estos constructos pueden desmitificar ideas preconcebidas sobre las personas pertenecientes a culturas individualistas. Para finalizar, se ha presentado un ejercicio sobre el choque cultural, que tenía como propósito, por un lado, ofrecer un instrumento de evaluación de las experiencias interculturales, el estrés de aculturación y adaptación sociocultural.

GLOSARIO

Análisis pancultural → Técnica estadística que se realiza mediante la combinación de los datos de varias culturas. En este tipo de abordaje se ignora la cultura de origen y se supone que la estructura factorial resultante tiene un carácter universal.

Autoconcepto → Identidad propia, esquema básico que consiste en un conjunto organizado de creencias y actitudes acerca de uno mismo.

Cultura subjetiva: conjunto de valores, normas, creencias y actitudes que comparte un grupo social y que se refleja en los estilos de interacción social, símbolos y lenguaje, rituales y ceremonias.

Choque cultural → Es la distancia o diferencia cultural percibida en valores, normas, creencias y prácticas culturales entre la sociedad de origen y la receptora.

Distancia jerárquica → Plantea hasta qué punto los miembros menos poderosos de los grupos aceptan las desigualdades de poder. Así, las culturas con alta distancia jerárquica valoran más la jerarquía social y el respeto a la autoridad, mientras que las sociedades con una baja distancia jerárquica se caracterizan por tomar las decisiones de manera consensuada.

Estrés de aculturación → Es una de las consecuencias del choque cultural. Este tipo de estrés puede manifestarse mediante un estado general de frustración, tensión o fatiga cultural.

Evitación de la incertidumbre → Se considera como el grado en que los miembros de una cultura se sienten amenazados por las situaciones ambiguas o desconocidas, las cuales intentan evitar por medio de códigos y creencias estrictas. Las naciones de alta

evitación de la incertidumbre son más ansiosas, así, necesitan leyes y reglas que regulen la vida social en cada momento. Mientras que las naciones con baja evitación de la incertidumbre aceptan más los riesgos y lo desconocido, además no precisan tantas reglas y leyes.

Individualismo-colectivismo → Cuando se trata este constructo no se habla de individualismo y colectivismo, sino de individualismo-colectivismo. Hofstede, al hacer uso de esta expresión, asume una única dimensión, la cual expresa la relación entre el individuo y el grupo. El individualismo es característico de las culturas donde las vinculaciones y lealtades a los grupos adscritos son débiles y donde cada uno construye y elige sus grupos primarios (familia nuclear y relaciones de interpersonales) y donde se espera que cada uno se ocupe de sí mismo. El colectivismo, por su parte, es propio de sociedades en las que las personas están integradas en grupos cohesionados que las protegen, solicitando a cambio una lealtad incuestionable.

Masculinidad-feminidad → Las culturas masculinas están focalizadas en los logros individuales y en las acciones referidas a tareas, en valores como el logro personal y la competición. En estas sociedades los papeles sociales de ambos sexos son claramente distintos (por ejemplo, el hombre debe ser duro e interesarse por el éxito material, mientras que la mujer debe ser modesta, tierna y estar preocupada por la calidad de vida). Por su parte, las culturas femeninas enfatizan la armonía interpersonal y las relaciones; en estas sociedades los papeles sociales se solapan (tanto hombres como mujeres deben ser modestos y tiernos, así como estar preocupados por la calidad de vida).

5. Gaia: Giza kognizioa, soslaiak, heuristikoak eta atribuzio kausala

5.1. Diziplina kognitiboak definitzen dituzten ezaugarriak

Edozein teorizazio-motak, zientzia kognitibotzat hartua ahal izateko, ondoko ezaugarriak izan beharko lituzke:

- Iharduera kognitiboa gogamen-irudikapentzat hartu beharra dago, eta maila biologikoaren nahiz neurologikoaren analisi-ikuspegiak baztertzeaz gain, analisi soziologiko eta kulturaletatik ere aldendu beharra dago.
- Giza-gogamena ulertzeko konputagailu-irudiarekin parekatuko dugu. Garuna, alde fisikoa, Hardwarra litzateke eta Pentsamendua, alde psikikoa, Softwarra.
- Emozioak, faktore historikoak, kulturalak, egoera-kontestua, aurrekoak, gizapentsamendua azaltzeko ez dira beharrezkoak diziplina kognitiboa azaltzeko.

- Zientzientzia kognitiboak, funtsean, diziplinartekoa da. Hau da, diziplina kognitiboen artean, ekarpen gehienak ematen dituztenak ondokoak dira: filosofia, hizkuntzalaritza, psikologia, antropologia, neurozientziak eta intelijentzia artifiziala.

5.2. Psikologia sozial kognitiboaren historia

Psikologia Sozialaren Psikologia Kognitiboaren agerketa, 70 hamarkadaren erdikaldean kokatu ohi da. Marcus eta Zajonc (1985) Psikologia Soziala eta Psikologia Sozial Kognitiboa sinonimoak direla esatera heltzen baitira. Hain zuzen ere, Psikologia Sozialaren autore guztiek bere azterketa azalgorrak ematen dituzte prozesu kognitibotan oinarriturik.

Gaur egun, kognizioaren menpekotasuna 10 urte ondoren eman eta gero, emozio eremurako joera omen dator (Echebarria eta Páez 1989).

5.3. Soslaiak eta heuristikoak

SOSLAI ETA HEURISTIKOAK “errakuntza sistematikoak” (“errores sistemáticos”) dira, jendeak judizioak adieraztean ematen direnak. Soslai hauen agerpenak zerikusi handia du eskema erabilpenarekin. Hau da, eskema baten aplikazioa da errakuntza sistematikoak sortzen dituen (Nisbett & Ross 1980; Nisbett et al 1983; Kahneman & Tversky 1985; Marcus & Zajonc 1985).

Adib:

- 1.- Eman dezagun, telebistan nahiz egunkarian Ijito talde batekin gertaera negatiboa eman dela ikusten dugula.
- 2.- Egoera horrek, guran pentsaera batzuk sortaraziko ditu, NEGATIBOAK.
- 3.- Guk jakin gabe, “eskema” batzuk sortzen ditugu buruan.
- 4.- Ondorioz, ijito bat ikusten dugun baikotzean, pentsaera negatiboa etorriko zaigu burura, nahiz eta guk ez jakin zergatik dugun erreakzio hori.

** Nola liteke guk inoiz ikusi ez dugun pertsona batengan erreakzio negatiboa izatea?: Bada, ESKEMA BAT SORTU DUGULAKO BURUAN.*

SOSLAI ETA HEURISTIKOAK elkarren artean bereizten dira. Soslaietan errore sistematikoak mugatasun kognitiboei dagokielarik; Heuristikoetan, aldiz, erroreak ez dira gertatzen mugatasun kognitiboengatik.

5.3. Soslai motak

1.- erantzun-soslaia → zeregin honetako funtsezko soslaiak ondokoak liriteke (hastie, 1983; lindsay & norman, 1983; harwey & weary, 1984; ross & fletcher, 1995)

a) akiezentzia soslaia: erantzun baieztakorrak emateko joera da, galderen edukiari begiratu gabe. denari baietz esateari dagokio.

b) negatibitate soslaia: aurrekoaren alderantzizkoa da. erantzun negatiboak emateko joera, galdera edukiari begiratu gabe.

aurreko bi soslai hauek, galdesorta pasazioetan kontutan izan behar ditugu, zeren subjektuak honela erantzuten badu, dena pikutara dihoa.

c) desiragarritasun soslaia: rizpide sozialaren arauera erantzunak ematea da. hau da, subjektuak bere erantzuna egokitzen du, sozialki desiragarria den ala ez arauera.

2.- pertseberantzia soslaia → hasierako usteak mantetzeko joera da, nahiz eta uste honen aurkako nabaritasun diskriminatzaileak aurkitu.

3.- lehentasun (primazia) soslaia → funtsean, judizioak ematerakoan lehen inpresioak erabiltzeko joera da, ondorengo informazioa: pertsona bat ezagutzen duzue ondo jantzita, ondo usaintzen du... ez daukazue informazio gehiago. hasieran, pentsatuko duzue majua dela, beste informazio kontutan izan gabe. “efecto de primacia”.

5.4. Heuristiko motak

1.- Errepresentatibitate-heuristikoak: Pertsona bat kategoria batekotzat hartzen dugu, nahiz eta kategoria horren ezaugarriren batekin bakarrik egokitzen bada.

Adib: demagun subjektu bati esaten diogula, ondoko egoera kontutan har dezan: harreman publikoetarako lanpostu bat betetzeko deialdi bati 100 kandidato aurkezten dira, 60 injiniari atomikoak eta 30 legegizonak. Subjektuari zera galdetzen zaio “zein gertagarritasuna dago zure ustez, hautatua injiniaria edo legegizona izan dadin?”.

Jende gehienak esaten du, gertagarritasun gehiago dagoela legegizona izan dadin hautatua, harreman publikoei buruz duen kategoriaz hobe egokitzen delako. Argi dezagun, bada, injiniari atomiko bati buruz izan dezagun eskema, bere laborategian itxirik lanean ari den gizabanakoari dagokio, bere formuletan murgildua, komunikakorra ez denari alegia. Bestalde, legegizonari buruz dugun eskema, besteekiko harremanetareko gaitasun handia duenari dagokio, oratoria trebeakoari, etab alegia. Legegizon-eskema hau injiniariarena baino hobeto deitzen zaio harreman publikoenari, horregatik, arestian emaniko egoeran, gertagarriagoa da jendeak aukera dezan.

2.- Disponibilitate heuristikoak: Heuristiko mota hau, gertaera zehatz bat jazotzeko probabilitateari edo maiztasunari buruz judizioak ematean datza, gertaera honek hautematean, oroimenean, edo berreraikuntzean duen eskuragarritasunaren arauera (Fiske & Taylor 1984; Eiser 1988). Hau da, jendeak gertaera baten maiztasuna juzkatzen du, gogamenera irudia adibideak datozen erraztasunaren arauera. Demagun Euskal herriari buruz kanpoan dagoen irudia.

Adib: madrildar bati bihar Euskal herrira etorri behar duela esaten diogula. Bestalde, eskatzen diogu manifestaldi edo atentatu batean inplikaturik izateko den gertagarritasuna esan diezagun. Pertsonal honek, euskal hiritar batek baino gehiago estimatuko du honelako egoera batean saturik izateko gertagarritasuna, Euskal Herriari buruzko eskema aktibatu duelako.


3.- Doitasun eta aingurapen heuristikoak: Heuristiko hau ondokoari dagokio, batetik, gertaera-koiuntzioen gertagarritasuna gainestimaketari, eta bestetik, gertaera-disiuntzioen gertagarritasuna azpiestimaketari (Fiske & Taylor 1984; Páez eta al 1987).

Adib: demagun ondoko jazoera: bilera edo kongresu batean 100 pertsona agertu direla esaten digute, horietariko 50 albaniarrak direlarik. Bestalde, 100 pertsona horietatik 20 psikologoak dira. Ondoren, bilera-gelara sartzekoan kongresu-etorletariko batekin topo egiten dugula ere esaten digute: zer da gertagarriago, pertsona hori albaniarra, psikologo, edo psikologo albaniarra izatea? Berez, errazago eta gertagarriago litzateke, psikologo edo albaniar batekin aurkitzea psikologo albaniar batekin baino

5.5. Atribuzio kausala eta kultura

- Gizabanako kolektibistak (hinduak) jarrerak gehiago azaltzen/esplikatzeko dituzte kausa eragileengatik baita testuinguruagatik, individualistak aldiz barne disposizioagatik.
- Gero eta adin gehiago, ume individualistak (EAB) barne azalpenak erabiltzen zituzten, sozializazio efektua azalduaz (Miller, 1984).

Adib. Arabia Saudi eta EE.UU. konparatuaz, azkenak barne atribuzio gehiago azaltzen zuten lehenengoekin konparatuaz.



6.Gaia: Jarrerak

Sarrera – definizioa

DEFINIZIOA: "Pertsona, objektu edo arazo batekiko sentimendu orokorra, etengabe positiboa edo negatiboa dena." (Petty eta Cacioppo, 1981).

Zerbaitekiko edo norbaitekiko jarrera jakin bat dugula esatea **sentimenduak** eta **pentsamenduak** ditugula esateko modu laburtua da.

Banakako eta **partekatutako** iritzi horiek psikologia sozialean aztertzen dira, eta jarrera esaten zaie.

Zergatik dira garrantzitsuak jarrerak? →bi arrazoiengatik:

1. Eragin handia dute gizarte pentsamenduan, informazio prozesatzeko dugun moduan, Jarrerak, **eskema** moduan jarduten dira, kontzeptu zehatzei, egoerei edo jazoerei buruzko informazioa duten eta antolatzen duten ezagutzazko esparru moduan (Wyer eta Srull, 1994). "Buruko aldamio".

2. Portaeran eragina dutela uste izan delako ere ikertu izan dira jarrerak.

6.1. Jarrerak osatzen dituzten elementuak


6.1.1. Dimentsio bakarreko eredua:

Jarrera jakin bat eragiten duen objektu baten ebaluazio orokorra eta iraunkorra (izaera positiboa edo negatiboa duena).

Hiru dimentsioko eredua:

- 1. Afektibitatezkoak:** Atsegina edo atsekabea/desatsegina ebaluatzeko sentimenduak (mespretxua, arbuiapeña, maitasuna).
- 2. Ezagutzazkoak:** Jarreraren xedeari buruzko sinesteak, iritziak edo ideiak eta informazioak.
- 3. Joerazkoak/Jokabidezkoak:** Jokabidezko asmoei edo jarduteko joerei buruzkoak. Gerturatzerara edo urruntzerara bultzatzen gaitu.

Desarrollo y medición de la actitud



6.2. Jarreraren izatea

Jarrerak ikasi egiten dira: ondorioz, arrazoi biosozialetatik bereiz daitezke (gosea, egarria, edo sexua, esate baterako); izan ere horiek ez dira ikasitakoak. Hala ere, xerra, otarraina, esnea edo garagardoa nahiago izatea jarreratzat jotzen da.

Jarrerak nahikoa iraunkor mantentzeko joera izaten dute.

Jarrerak objektu edo ideia jakin baterantz zuzentzen dira beti: Balioak ez bezala, esate baterako; izan ere, balioak zabalagoak eta abstraktuagoak dira, eta jarrerak, aldiz, zerbaitekiko edo zerbaiten kontra izaten dira.

Jarrerak emoziozko osagaiak dituzte.

Jarrerak oso positiboak edo oso negatiboak izan daitezke: “Objektu jakin batekiko jarrera zehatz bat etenik gabeko lerro bateko puntu jakin batean egongo da, eta lerro horrek balio oso negatiboak, tartekoak, zero puntua, eta balio positiboak izango ditu”.

6.3. Nola sortzen dira jarrerak?

Jarrerak honako egoera hauetako batean edo hainbatetan sor daitezke:

6.3.1. Ikasketa bidez:

a) **Baldintzapen klasikoa.** Bi gauza asoziatu. Emozioen gainean, sentipenak eratzeko.

b) **Baldintzapen instrumentala:** aukera «zuzenak» hartuz ikastea. Aldeko edo kontrako jarrerak, lehenago indartu egin direlako; jokaera bat izateko joera.

c) **Ikaskuntza soziala:** Modelaketa: adibideen bidez ikastea. Besteen jokaera behatuz eta imitatuz jarrera bat hartu; jokaera (rol-moldeak); ikaskuntza bikarioa.

6.4. Jarreraren eta portaeraren arteko harremana

6.4.1. Jarrerak ezagutuz gero, aurrean al dezakegu portaera

Autoreak bi galdera hauen aurrean ez dakite zein dator lehenengo eta ondorengo zein den, elkar harremanduta daudela dakite soilik.

**Jarrerak ezagutuz gero,
aurrean al dezakegu portaera?**

**Portaerak jarrerak
mugatzen al ditu?**



Zein harreman dago garenaren (barrualdean) eta egiten dugunaren (kanpoaldean) artean?

Uste nagusia → sineste eta sentimendu pribatuak portaera publikoa mugatzen dute.

Hasieran, psikologo sozialak pertsonen jarrerak ezagutzeko euren ekintzak iragar daitezkeela uste zuten. Baina, 1964. urtean, **Leon Festinger**-ek ondorioztatu zuen: *ezin dela argi eta garbi esan jarrerak aldatzeak portaera aldarazten duela. Gainera, jarrera-portaera harremana alderantzizkoa ere badela uste izan zuen* (portaera → jarrera).

Jarreraren ustezko ahalmenaren aurkako ebidentzia. 1969 urtean **Allan Wicker** psikologo sozialak hainbat pertsona, jarrera eta portaerari buruzko dozenaka ikerketa berrikusi, eta honako ondorio eskandalagarria : *pertsonen jarrerak baliagarritasun txikia dute portaera aldaketak iragartzeko.*

Richard LaPiere-k egindako ikerketa

Noiz iragartzen dute portaera jarrerak?

Sarritan, adierazten ditugun jarreraren aurka jarduten gara; izan ere, adierazten ditugun portaera eta jarrerak beste indar batzuen eraginpean daude.

Psikologo sozial batek (Triandis, 1982) jarreraren eta portaeraren arteko harremana korapilatzen duten 40 eragile (Familia, ingurunea ...) zenbatu zituen (elkarrekiko mendekotasunik gabeak).

Portaera jarreraren bidez iragarri ahal izateko, nahitaezkoa da:

a.- Gizarteak jendeak adierazitako jarreretan duen eragina minimizatzea: Batzuetan *besteek entzun nahi luketela uste duguna esaten dugu*. Gizarteko eraginak oso handiak izan daitezke, eta pertsonak euren uste sendoenak urratzea eragin dezakete.

b.- Portaerako jarrera zehatzak aztertzea: aztertutako jarrera orokorra denean (esate baterako, asiarrekiko jarrera jakin bat) eta portaera oso zehatza denean (esate baterako, LaPiere-ren azterketan asiar bikote zehatz bati laguntzeko erabakia hartzea), gerta liteke hitzak eta ekintzak ez bat etortzea.

“Osasunaren onura” kontzeptu orokorrarekiko jarrerak baliagarritasun txikia dute ariketa eta dieta arloko jarduna iragartzeko. Kontrazepzioarekiko jarrerak nabarmen iragartzen dute antisorgailuen erabilera (Morrison, 1989). Birziklapenarekiko jarrerak (baina ez ingurumenaren aldeko jarrera orokorrek) birziklapenean izandako parte-hartzea iragartzen dute (Oskarnp, 1991).

d.- Jarrera eskarmentuari zor zaionean: Fazio-k eta Zanna-k (1981) egindako hainbat esperimenteren bidez **eskarmentuari** esker sortzen diren jarrerak irauteko eta gure jarduna gidatzeko askoz aukera handiagoa dutela egiaztatu ahal izan zen.

6.4.2. Portaerak jarrerak mugatzen al ditu?

a.- Rolak betetzea: Egoera berriek portaera berriak eskatzen dituzte, eta portaera berriek, era berean, jarrera berriak eragiten dituzte. “Rol” agindutako ekintzak adierazi nahi ditu (gizartean kokaleku jakin bat dutenengandik espero diren ekintzak). **Gizarteko rol berri bat egokitu bazaigu, dagozkion ekintzak egin beharko ditugu, hori eginez faltsu sentitzen bagara ere.** Baina faltsutasun sentipen horrek oso gutxitan iraungo du.

b.- Esatetik sinestera. Zerbaitekiko egiazko zalantzak dituzten pertsonen zalantza horiei buruzko testigantza emanaraziz gero (hitzez edo idatziz), sarri gaizki sentituko dira engainuaren eraginez. Dena den, **esaten ari diren horretan sinesten hasiko dira**, baldin eta eroskeriapean edo bortxapean ari ez badira. *Esaten dugunerako kanpo azalpen hertsagarririk ez bada, esana sineste bihurtzen da* (Klaas, 1978).

Laburbilduz, badirudi mezuak entzuleen arabera egokitzeko joera dugula, eta era berean, badirudi aldatutako mezua sinesteko joera dugula.

c.1.- “Oina atean” izeneko fenomeno: Erakunde bati laguntza ematea onartu ondoren, nahi baino gehiago nahasi behar izan dugu; beraz, zin egin dugu etorkizunean gisa horretako eskaerarik jaso ez gero ezetz esango dugula. Egindako esperimenteren arabera, **norbaitek mesede handi bat egitea nahi badugu, lehenik mesede txiki bat egiteko konbentzitzea izan daiteke teknika egoki bat.**

c.2 “beheko bola ” izeneko teknika: konpromiso txikien ahalmena ustiatzeko.

Guzti hau koherenteak izateko dugun beharrarekin dago lotuta: **gure aurreko portaerak mugatzen du gure oraingo portaera eta gure jarrera aldatu dezake.**

6.4.3. Zergatik eragiten diete ekintzek jarrerei?

a.-NORBERAREN AURKEZPENA: Itxura maneiitzea. Norberaren aurkezpenaren teoriak dioenez, estrategiazko arrazoen ondorioz konsistentzia itxura ematen diguten jarrerak adierazten ditugu.

Pertsonak “itxura maneiatzearren” ahalegintzen dira. Esaten dutena egokitu egiten dute gainerakoen gustua egiteko, samindu ordez. Baina pertsona **batzuentzat itxura ona ematea bizitzeko modua ere bada.** → Pertsona horiek euren portaera etengabe “**monitorizatzen**” dute, eta gainerakoen erantzunei so egoten dira, nahi duten ondorioak lortzen ez dituztenean gizartean duten zeregina aldatu ahal izateko.

Automonitorizatzeko (edo auto-kontrol) joera handia dutenak (“*Gainerakoek nigandik espero dutena izateko joera dut*” esaten dutenak, esate baterako) **kameleoi sozial** gisa jarduten dira eta euren portaera kanpoko egoerei erantzutearren egokitzen dute (Snyder, 1987). Eta iragarkien estetikak eta ematen den irudiak eragina handiagoa du beraiengan.

Automonitorizatzeko joera gutxikoak edo gabekoak, berriz, gainerakoek pentsa dezaketenak gutxiago kezkatzen ditu. **Barruan dutenak gidatu ohi ditu**, eta beraz, sentitzen eta sinesten dutenaren arabera mintzatu eta jarduteko joera handiagoa izaten dute (McCann eta Hancock, 1983). Hauek produktuaren kalitateari buruzko informazioari garrantzi gehiago ematen diote.

b.-NORBERA ZURITZEA: Ezagutza mailako disonantzia (Leon Festinger, 1957). **Ezagutza mailako disonantziaren teoriaren arabera, gure ekintzak gure buruaren aurrean zuritzen ditugu deserosotasun maila murriztea helburu izanik.**

Gure jarrerak aldatu egiten dira gure portaera arrazoizko bihurtzeko motibazioa dugulako. Bi pentsamendu edo sineste psikologikoki bateraezinak direnean (bat ez datozela)tentsioa “disonantzia edo egokitasun eza” sentitzen dugu. Festingerren arabera, gure pentsaera doitu egiten dugu, tentsioa murrizteko helburuarekin.

- Objektu, pertsona edo egoera baten aurrean ditugun sinesmenak, sentimenduak eta portaera edo jokatzeko joerak bat etor daitezke: hala denean “konsistentzia” dugu, ez bada honela “disonantzia”.
- Gure sinesmenen artean, ezagutza ezberdinen artean eta jarrera eta jokaera artean **oreka bat bilatu beharra** sentitzen dugu. Konsistentzia/Koherentzia.
- Jarrerak, ebaluazioak direnez, **BALENTZIA** (aldeko edo kontrako norabidea) eta **INDARRA** dute (balentzia horretan noraino heltzen diren).

Disonantziaren iturriak

Disonantzia egoera batetan deseroso sentitzen gara eta irtenbide bat bilatzen dugu.

Jarreraren kontrako portaera horrek arbuiagarria (gorrotagarria edo “abertsiboa”) izan behar du.

Disonantzia erabakia askatasunez hartu dugun zerbaiti buruz sentitzen dugu (guk nahi izan dugulako egin dugu: erretzea, karrera aukeratu eta abar): gu garenean erantzule eta egoera **aldatzeko zerbait egin ahal dugula** konturatzerakoan. Kontrola dugu.

Eta ondorio txarrak ekarri ditzakeela konturatzen garenean.

Figura 8.2 Cuatro pasos hacia la disonancia





Figura 8.4 Alternativas a la disonancia y el cambio de actitudes



Una conducta discrepante con la actitud puede conducir al acceso de disonancia, a través de los cuatro pasos descritos anteriormente en el capítulo. Sin embargo, en cada paso existen

alternativas que van a bloquear el acceso de disonancia. Aun si se produce la disonancia, se puede reducir por medio de la afirmación del yo, así como por el cambio de actitud.

Disonantzia nola murriztu

Festinger-en disonantziaren teoriaren arabera, elkarren aurka doazen kognizioek oreka eza eta erosotasun eza sortarazten diote subjektuari. Antza, gizakiok guztiz koherenteak izaten saiatzen gara. Edo, Aronson-ek esan bezala (1987) **“zuzen egotea baino areago zuzen ari garela sinestea da gizakion interesa.”**

Ezaguna da, Festinger-en lanari jarraituz, hainbat bide daudela disonantzia murrizteko:


Disonantzian dauden gaiak aldatzea, osagarriak ez diren gaiak ezabatzea: tabakoa horren kaltegarria den jakin duen erretzailea tabakoari uzten saiatuko omen da.

Disonantzian dauden gaiak **aldatzeko errazena aukeratzea**: erretzeari uztea oso zaila da, beraz, bigarren gaia moldatzen saiatuko da erretzailea, hau da, **diskurtso mailan** arituko da eta tabakoari buruzko informazioa moldatuko du.

Disonantzia **eragiten dion portaeran tematu**: erretzeari utzi beharrean, erretzearen alde arituko da eta erretzaileen eskubideak edo irudiaren alde.

1. Kanpoko justifikazioa ez zen nahikoa izan: “Azken finean experimentuak merito zientifikua dauka, erronka bat izan zen aspergarria baino gehiago”

- Kontrol subjektuentzat ataza nahiko aspergarria suertatu zen
- 20\$ jaso zutenak kanpo justifikazioa izan zuten
- Eta dolar batengatik gezurra esan zutenak ?



2. Erabakien ondorengo disonantzia:

Aukera eta erantzukizuna nabarmentzeak erabakiek disonantzia eragiten dutela esan nahi du. **Garrantzi handiko erabakiak hartu ondoren, oro har, disonantzia murrizten dugu, egin dugun aukera hobetuz**, eta baztertu dugun aukerari erakargarritasuna kenduaz.

Egindako apustuarekiko baikortasun handiagoa.

3. Esfortzua justifikatu beharra: Sufritu arazi nau, beraz hori gustukoa izan behar dut.

Zergatik jendeak batzuetan sufritu arazi diona atsegintzat jotzen du?: Jendeek beren jarrerak aldatzen dituzte norberaren sufrimendua justifikatzeko

Esfortzu- esangura efektua (Efecto esfuerzo-significación): gizenegiak dauden emakumeak (beren borondatez erantzun diote egunkari batetako iragarki bati): trebakuntza ezberdina pairatu zuten (batzuk esfortzu handiagoko atazak zeintzuk dietarekin zerikuzi zuzena zuten, besteek ataza errazagoak dietarekin zerikusirik ez zutenak

Zerbaitetan zenbat eta gehiago jartzen dugun (denbora, esfortzua, dirua) hori gehiago gustatzen zaigu.

6.5. Jarreraren eginkizunak

6.5.1. Eginkizun instrumentala, egokitzapeneko edo erabilgarria. (ikaskuntzaren teoria konduktista).

Jendeak kanpoko munduko sariak maximizatzeko eta desatsegina dena minimizatzeko ahalegina egiten du.

6.5.2. *Nia babesteko eginkizuna* (freud-en babeserako mekanismoak, teoria psikoanalitikoak).

Kanpoko mundutik eta horrek eskain dezakeenetik ahalik eta etekin handiena ateratzearen ahalegintzen dira pertsonak; baina, era berean, **energia asko erabiltzen dute norberaren burua onartzen.**

Gizabanakoak ni-a barne bulkada onartezinetatik eta kanpoko indar mehatxagarrietatik babesteko erabiltzen dituen mekanismoei eta arazo horiek eragiten duten antsietatea murrizteko balio duten metodoei ni-a babesteko mekanismo esaten zaie.

Adibideak:

- “Dentistarenera joateko eguna ahaztu zait, eta ondoren oroitu naiz” (**ahaztea-ukatzeta**)
- “Ikasle batek azterketan kopia nahi badu baina gisa horretan jardutea ez badu etikotzat jotzen, gainerakoei kopia izana leporatuko die (**Proiektzioa**)”.
- “Nagusiarekin haserre dagoen gizonak ez dio hari ekiten, eta etxean sesioan ibiltzen da”. (**ordezkatzeta**).
- “Sona handiko pertsona batekin edo futbol talde garaile batekin bat egiten dugunean gehiago balio dugula uste izaten dugu” (**Bat egitea**.)

6.5.3. Balioen adierazpen eginkizuna (psikologia humanistaren teoriak. carl rogers-ena, abraham maslow-ena eta abar).

Jarrera askoren eginkizuna gizabanakoek norberari eta gainerakoei euren egiazko izatea ezagutzera eman diezaien saihestea da. Beste batzuen, berriz, **norberaren balio nagusiei eta ustezko pertsona motari adierazpen positiboa ematea da.**

Pertsona batek kontserbatzaile ilustratutzat, internazionalistatzat, edo liberaltzat jo dezake bere burua. Horregatik, portaeraren eginkizuna ez da soilik bulkada biologikoen edo barne gatazkek eragindako tentsioak murriztea.

Sineste preziatuenak eta norberaren irudia islatzen duten jarreraren adierazpenaren bidez ere gogobetetzen dira pertsonak. Kasu horietako saria gizartearen esker ona edo dirua baino gehiago **norberaren nortasunari eustea** eta ustezko pertsona motaren ideia sendotzea da.

Norberaren gaitasunak, ahalmenak adieraziaz gogobetetzen garen bezalaxe, norberaren ni-ari lotutako ezaugarriak adieraztean ere gogobetetzen gara.

6.5.4. Egokitzapeneko edo doikuntza sozialeko eginkizuna

Jarrerak **talde jakin batzuetako kide egitea eta gizartearen onarpena jasotzea** ahalbidetzen dute.

Doikuntza sozialeko eginkizuna betetzen duten jarrerak garrantzitsutzat jotzen ditugun pertsonetako (lagunak, familiakoak eta abar) harremanen oinarriak jartzen laguntzen dute; hau da, gizabanakoari ingurune sozialera egokitzeko aukera ematen diote (ontzat hartua eta onartua izatea, gainerakoen aurrean irudi positiboa ematea).

Pertsona batek alkoholaren kontsumoarekiko jarrera positiboa izan dezake baldin eta lagunak “*poteo*”-an ibili ohi badira. Jarrera horri eutsiz gero, taldeko kide sentitzeko beharra asetuko du gizabanakoak, eta ez du bere burua taldetik kanpo sentituko “*pertsona bitxia delako eta edaten ez duelako*”.

6.5.5. Ekonomia edo ezagupenerako funtzioa:

Informazioa jasotzeko eta antolatzeko egiturak edo bideak (egitura kognitiboak) izango lirateke jarrerak.

Honen arabera, objektu baten aurrean jarrera bat daukagunean ba omen dakigu zer egin eta zer erantzun, nola jardun objektu horrekin. Jarrerak bideratzen du objektu horren informazioa jasotzeko prozesua, eta horrez gain, objektu horri esanahi edo adierazgarritasun bat ematen dio, informazioa jaso ez ezik gehitu eta erantsi egiten duelako (errealitateari esanahia ematen dio).

6.6. Jarrerak neurtzea

Jarrerak neurtzeko balio duten prozedurak hainbat dira. Batzuk “**zuzenak**” dira, eta beste batzuk “**zeharkakoak**”

6.6.1. Zeharkako neurketa

Ebaluazio fisiologikoa: (aktibatze autonomoko ondorio sistematikoak)

- **Erregistro poligrafikoak:** Erantzun kardiobaskularra: Elektrokardiograma (EKG) (Bihotz taupaden maiztasuna eta arterietako presioa).
- **Erantzun elektrodermikoa:** Larruazalaren konduktantzia areagotzea (larruazalean barrena korrontea igarotzean erresistentzia txikiagoa).
- **Elektromiograma erantzuna (EMG):** aktibatzea muskulu tonua areagotzea; aurpegiko muskuluak emozio egoerekiko oso sentikorrek dira (depresioa, esate baterako).

Erabilienak **zuzenak** dira (autoinformeen bidez).

Honako hauek nabarmen daitezke:

6.6.2. Likert-en eskala:

Gizabanakoei adierazpen multzo batekiko **adostasun- desadostasun maila** adierazteko eskatzen zaie. Adierazpen horietan objektu jakin batekiko jarrera espektro osoa barne hartzen da (esate baterako, bost puntuko eskala batean, 1 erabateko desadostasuna izango da, eta 5 erabateko adostasuna).

6.6.3. Ezaugarri anitzeko eskala:

Ajzen-en eta Fishbein-en ereduaren arabera (1980)

- Objektueta/edo portaera bati lotutako ezaugarriak ebaluatzeko moduan oinarrituta zehaztu daitezke gizabanakoen jarrerak.
- Objektu edo portaera jakin batekiko jarrera honako hauen baitan dagoela uste da: *objektuaren ezaugarriei buruzko sinesteen baitan* (zein punturaino uste den ezaugarri bat objektu bati lotuta dagoela), *portaeraren ondorioei buruzko sinesteen baitan* (zein punturaino uste den portaera batek emaitza jakin bat ekartzen duela), eta *gizabanakoek ezaugarri edo ondorio horien gainean egindako balioespenen baitan* (ikus aurrerago)

6.7. Jarrera aldaketa

MEZUA → Beldurra baliatzea

- Erantzun paraleloaren eredua (Leventhal)
- Babestea motibatze teoria (Rogers)
- Autoeraginkortasuna

6.7.1. Mezua: beldurra baliatzea eta pertsuasioa

Badira **pertsuasio bidezko zenbait komunikazio mota**. Komunikazio mota horiek **beldurra, kezka edo mehatxu sentipena baliatzen dute** eta pertsonak gomendio multzo bat onartzea eragiten dute.

Horrelako komunikazioetan, **portaera jakin batek izan ditzakeen ondorio kaltegarrien berri jakinarazten zaio gizabanakoari.**

Era berean, **beharrezkoak diren neurriak hartuz gero ondorio negatiboak desagertu** egingo direla adierazten zaio.

Pertsuasio bidezko komunikazio mota horietan (emozio negatiboak eragiten dituztenetan) **beldurra erabiltzen edo eskatzen** (*fear appeals*) dela esan daiteke.

- *Osasunari buruzko informazio kanpainetan* erabiltzen da.

- *Beldurra baliatuz, ohitura osasungarriak sustatu nahi izaten dira.*

Horretarako, **egokitzapeneko portaeraren bat izatea eskatzen da gizabanakoarentzako kaltegarriak diren ondorioen agerpena saihesteko** (dieta orekatua izatea, ahoaren eta hortzen higiegi egokia izatea, preserbatiboa erabiltzea, autoan goazela segurtasun uhala ipintzea eta abar). Era berean, **arazoak eragiteko aukera handia duen desagokitzapeneko portaeraren bat izateari uztea gomenda daiteke** (ez erretzea, ez edatea, xiringak ez partekatzea eta abar).

BELDURRA ERABILTZEARI BURUZKO TEORIEI DAGOKIENEZ, HONAKO BI HAUEK BEREIZ DAITEZKE:

1. Erantzun paraleloaren eredua (Parallel Process Model) (H. Leventhal): beldurrari (emozioari) aurre egitea versus arriskuari aurre egitea (ezagutza).

Bi jarrera nagusi: Beldurra eta Arriskuari aurre egitea.

Ereduaren arabera beldurra baliatzearen ondorioz **emozioak aktibatzea (beldurrari aurre egitea edo saihestea)** gizabanakoak egindako **ezagutza mailako ebaluazioak (arriskuari aurre egitea edo saihestea)** baino garrantzi txikiagoa duen eragilea da.

Mezua pertsuasibotzat joko da, baldin eta gizabanakoa motibatuta badu beldurra erabiltzean agerian geldituko den kaltetik edo mehatxutik “babesteko”.

Beraz, **arriskuari aurre egiteko motibatuta dagoenak informazio gehiago jasoko du arriskuari buruz, era pragmatikoagoan jokatu du eta horregatik egingo dio arreta gehiago arriskuei buruzko informazioari.** Bere motibazioa arazoetatik ondo irtetea izaten da. **Beldurra (emozio)-ak motibatzen bazaitu arriskua saihestuko duzu, ez duzu informaziorik eta prebentziorik bilatuko.**

2. Babestea motibatze teория (Protection Motivation Theory) (R.W. Rogers)

Rogers -ek (1975) argudiatu zuenez, beldurra baliatzea jarrerak eta/edo portaerak aldatzeko baliagarria izango bada, **emandako mezuak informazio mailako hiru osagai** edo maila izan beharko ditu:

➤ **Kaltearen larritasunari edo portaeraren kaltegarritasunari buruzko informazioa.** Hau da, mezuaren bidez, gomendioari jaramonik ez egiteak ekarriko

duen ondorio motari buruzko argudio sendoak eman beharko dira (ondorioaren larritasuna).

- **Ondorio negatiboak jazotzeko aukerari buruzko informazioa.** Hau da, iradoki diren gomendioei jaramonik egin ezean aipaturiko ondorio negatiboak izateko aukera oso handia dela azaldu beharko da mezuak.
- **Gomendatutako erantzun(ar)en eraginkortasunari buruzko informazioa.** Iradoki diren gomendioei jaramon egiteak aipaturiko ondorio negatiboak saihestuko dituela bermatu beharko du mezuak. Hau da, aipaturiko gomendioak kaltea saihesteko eraginkorrak diren babeserako erantzunak direla bermatu beharko du.

Komunikatzaileak hiru ezaugarri hauek dituen mezuaren edukia aukeratu eta aurkeztu beharko du. Esate baterako, pertsonak erretzeari uzteko konbentzitzeko: 1) erretzeak gaixotasun larriak eragin ditzakeela (biriketako minbizia edo bihotzeko arazoak, esate baterako); 2) erretzailea izanez gero gaixotasun horiek jasateko arriskua oso handia dela; 3) oraintxe bertan erretzeari utziz gero urte gutxiren buruan ondorio horiek jasateko arriskua ez erretzaileek duten arriskuaren antzekoa izango dela (Stroebe eta Jonas, 1990).

Beraz Rogers-ek (1975) azpimarratu zuenez, beldur mezua eraginkorra suertatu dadin, hartzailerean ezaugarri hauek eman beharko dira:

- 1) Hartzailereak **larritasuna hautematea**.
- 2) Ondorio hauek gertatzearen **aukera edo posibilitatea kontuan izatea. Ahultasunari buruzko iguripenak**.
- 3) **Aurre egiteko iradokitako erantzunen eraginkortasunean sinestea**.




BABESTEKO MOTIBAZIOA

Babesteko motibazioaren ereduak sostengu enpiriko handia jaso zuen. Hala ere, Rogers-ek berak (1983) eredu berrikustean bitartekaritzako **beste aldagai bat** barneratu zuen → **autoeraginkortasuna**: *norbera gomendatutako ekintza burutzeko gai dela hautematea*

Rogers-en (1983) **eredu hedatuan errefortzuek** (desegokitzapeneko portaera mantentzen ari direnek) eta **gomendioaren kostu psikologikoen eta finantza arlokoen** ere garrantzi handia dute.

Esate baterako, sendotze negatiboko prozesuen eraginez eusten zaio sarri erretzeko ohiturari (zigarro bat piztea tentsio egoeretan erlaxatzeko modu bat izan daiteke, azterketa garaian adibidez). Gainera, ohitura hori alde batera uztearekin lotutako kostu psikologiko bat “erretzeari utziz gero gizendu egiten da” sinestea izan liteke

OSASUN SINESMEN EREDUA (Becker eta Maiman, 1975)



Hortaz, **babestea motibatzeak lau sineste motarekin harreman lineal positiboa** duela esan dezakegu. Sineste horiek honako hauei buruzkoak lirateke

- a) Mehatxuaren gainean hautemandako larritasuna
- b) pertsonaren urrakortasuna edo irudikortasuna
- c) Gomendatutako erantzunaren eraginkortasuna mehatxuari aurre egiteko
- d) Autoeraginkortasuna

Gainera, babesteko motibazioa **txikiagoa izango da** baldin eta:

a) Desegokitzapeneko portaera mantenduko duten ahalmen handiko sendotzaileekin lotuta badago

b) Gomendatutako erantzuna emateak kostu handia badu

Babestea motibatzeo teoriaren eskema

Komunikazioaren ezaugarriak	Ezagutza mailako bitartekaritzako aldagaiak	Babesa motibatzea	Mezua onartzea
Kaltearen larritasunari buruzko informazioa	Larritasuna hautematea		
Ondorio negatiboak jartzeko aukerari buruzko informazioa	Arazoa sortzen duen portaeraren eraginpean jartzeko aukera (urrakortasuna)		
Gomendatutako erantzunaren eraginkortasunari buruzko informazioa	Aurre egiteko iradokitako erantzunaren eraginkortasunean sinestea		
Autoeraginkortasunari buruzko informazioa	Autoeraginkortasuna hautematea		
			Gomendatutako erantzuna emateko asmoa

7. Gaia: Taldearteko erlazioak: aurreiritziak eta estigma

Estereotipoa, aurreiritzia eta diskriminazioa: gerturapena

Estereotipoa: taldeko kideen ezaugarriari buruzko sinismen multzoa

Aurreiritzia: talde sozialaren eta honen kideen ebaluazioa - jarrera, + edo -, orokorrean negatiboa

Diskriminazioa: Pertenentzia kategoriaren arabera pertsonei eskaintzen zaien berdintasun ezeko tratua



Estereotipoen, aurreiritziaren eta diskriminazioaren arteko harremana ulertzeko erarik ohikoena jarrean hiruko ikusmolde klasikoa da

Aurreiritziaren Ikuspegi Tradizionala



The psychology of Prejudice and Discrimination

(Whitley, B.E. and Kite, M.E., 2006)

- **AURREIRITZIA:** talde sozial zehatzeko kide izateagatik bideratzen den jarrera (Brewer & Brown, 1998)
- Askotan erreakzio automatikoak
- Positiboak, negatiboak edo bietarikoak izan daitezke (→erreakzio anibalenteak, sentimendu nabarmenenen menpe dauden erantzunak)
- Jatorria:
 - Bame taldearekiko mehatxuaren hautematea (beldurra, herstura edo areriotasuna)
 - Bame taldearen helburuetan oztupoak sortzen dituztela hautematen bada: baliabideak lortzeko zuzeneko lehia (lana edo finantzak)
 - Mehatxua hautematen bada: helburu desberdinak dituztelako
 - Erreakzio emozionalak (atsekabea, deserosotasuna), estigmatizatuta dauden taldeko kideekin gertuko harremana izateagatik
 - Modu kronikoan intoleranteak diren pertsonak (autoritarismo eskuindarra): balio tradizionalak bortxatzen direla hauteman (Altemeyer, 1996)
 - Aurreiritzi “ez-aurreiritzidunak” baztertzten dituzten pertsonak: deserosotasun eta herstura sentimenduak, baina ez areriotasuna, ezta portaeran eraginik ere (Dovidio & Gaertner, 2004). Berdintasuneko balioak elkarbanatzen dituzte.

The psychology of Prejudice and Discrimination

(Whitley, B.E. and Kite, M.E., 2006)

- **DISKRIMINAZIOA:** talde sozial jakin batetako kidea izateagatik modu desberdinean tratatzea pertsoneri (positiboa eta negatiboa izan daiteke)
- Motak:
 - **Pertsona arteko diskriminazioa:** pertsona batek beste bat, talde batetako kide izateagatik modu ez justuan tratatzen duenean. Pertsona arteko maila (adib. Pertsona batek pentsatzen badu “irlandarrak alkoholikoak direla”, irlandarrekin gustora sentitzen ez denean, eta bere antolamenduko kide izan ez dadin saiatzen denean).
 - **Erakundeetako diskriminazioa:** erakunde eta gobernuak talde bat bestearen gainetik dagoenaren sinesmenak onartzen dituzte. Modu zolian gerta daiteke, kontzientzia sozialaren azpitik, edota modu irekian. Azken honetan, talde batek bestearekiko abantailak izango ditu, hauteskundeak mugatuz, eskubideak, mugikortasuna, eta informaziorako, baliabideetarako edo beste pertsonenganako sarrera (Jones, 1997).
 - **Kultur diskriminazioa:** talde batek kultur balioak ezartzeko eta adierazteko boterea izango du (Jones, 1997). Honela, gutxiengo taldeak eta horien kultur herentzia baztertuak izango dira modu askotan (adibidez, Barbie-ren azal kolorea).
- Azken biak ikusteko eta onartzeko zailak izango dira, batez ere zuzenean eragiten ez dienen aldetik.
- Diskriminazioaren eta aurreiritziaren artean ez dago erlazio automatikoa: arau sozial, legal eta kulturalen menpe dago

7.1. Aurreiritzia

“Pertsona batekiko dugun aurkako jarrera edo mesfidantza, talde jakin bateko kide izateagatik” (Allport, 1954)

Aurreiritzian parte hartzen dute **banakako prozesuek**, kognitiboak (ad. Kategorizazioa) eta afektiboak (emozio negatiboak), **talde prozesuek** (partekatutako izaera du eta objektua kanpo talde soziala da) eta **gizarte prozesuek** (aurreiritziaren eta diskriminazioaren arteko erlazioa arau sozial, legal eta kulturalen menpe dago) (Gordon W. Allport)

7.1.1. Teoria desberdinak

(1) AURREIRITZIAREN ADIERAZPEN BERRIAK AURREIRITZI NABARI ETA ZOLIAREN TEORIA (Pettigrew eta Meertens, 1995, 2001, Morales, 2007, 595. orr.)



Aurreiritzi nabaria: “beroa, gertukoa, zuzena” da.

- Barne-taldea mehatxatua sentitzen da eta kanpo-taldeari gizatasuna kentzen dio.
- Taldeen artean ez da ukipen egoerarik egongo

Aurreiritzi zolia: “hotza, urrunekoa, ez-zuzena” da.

- Barne-taldearen balio eta arau sinboliko tradizionalak defendatuko dira.
- Kultura diferentziak puztu egiten dira eta kultur nagusitasuna defendatzen da.
- Kanpo-taldearekiko emozio positiboak ez dira adieraziko (bai,ordea, negatiboak) (adibidez, arrazakeria zolia)

ARRAZAKERIAREN FORMA BERRIAK (Páez eta beste, 2004, 802.o)

Arrazakeria erasokorra (Gaertner & Dovidio,1986): arrazista erasokorrek sinesten dute berdintasunaren printzipioetan (adibidez arrazen arteko berdintasuna) baina gutxiengo arrazen pertsonen aurkako ezinikusia dute. Desberdintasun etnikoak ikaskuntza sozialaren ondorioa izango dira

Arrazakeria modernoa edo sinbolikoa: diskriminaziorik ez dago gaur egun, iraganeko zerbait da. Gutxiengo talde etnikoek gehiegi presionatzen dute eta taktika ez justuak erabiltzen dituzte. Diskriminazio positiboa ez da justua

Arrazakeria berria: boterearekin du zerikusia; ez horrenbeste ideologiarekin. Arrazari lotutako botereak boterearen banaketan eragiten du: ezagutza, baliabideak eta trebeziak
<https://www.youtube.com/watch?v=Z341bBS7oj0>

(2) GATAZKA ERREALAREN TEORIA

Suposizioak:

- Gizakia egoista da eta berarentzat edota bere taldearentzat ahalik eta saririk handiena lortzen saiatzen da
- Taldeen arteko gatazka sortuko da hauek helburu elkartezinak badituzte(baliabide eskasak)
- Aurreiritzia eta diskriminazioa taldeen arteko gatazkari loturik sortzen dira

Gertutasun geografikoa eta gatazken historia → estereotipo negatiboak / estereotipo gehienak gertuko eta antzerako taldeen artean sortuko dira

M. Sherif –en ikerketa 1950ko hamarkadan → helburu supraordenatuak (Páez, 2004, 753.orr.)

The Robbers Cave Experiment Muzafer Sherif et al (1954)

- http://www.age-of-the-sage.org/psychology/social/sherif_robbers_cave_experiment.html

- <http://psychclassics.yorku.ca/Sherif/index.htm>
- <http://www.gerardkeegan.co.uk/resource/seminalstudies.htm>
- http://es.wikipedia.org/wiki/Experimento_de_Robber's_Cave

(3) IDENTITATE SOZIALAREN TEORIA


70eko hamarkadaren amaieran sortutakoa (Tajfel y Turner, 1979), *taldearen gutxieneko paradigmaren* bidez lortutako emaitzak azaltzeko


Kategorizazio soziala: gu-eurak efektua. Ez da beharrezkoa aurretiko gatazkarik egotea



Paul Klee Abrazo

Identitate Sozialaren Teoria Identitate sozialaren eta pertsonalaren arteko ALTERNANTZIA: Zenbat eta indartsuagoa eta sakonagoa izan identitate bat, bestea ahulagoa eta azalekoagoa izango da





7.1.2. Aurreiritzia: emozio sozial zehatza (*Leyens, Morales-en liburuan, 2007, 613orr.*)

Aurreiritziak bi zehaztasun mota ditu:

- Emozio zehaztasuna: talde desberdinek emozio desberdinak adierazten dituzte (gorrotoa, nazka, beldurra...) eta emozio hauek hainbat jokaera sor ditzakete (erasoa, alde egitea...). Beraz, aurreiritzia, ebaluazioa izateaz gain, afektua ere bada
- Egoera zehaztasuna: beste talde batenganako aurreiritzia ez da beti egonkorra, leku eta testuingurua zein den aldatu egingo da

Aurreiritzia emozio sozial zehatza bezala azal daiteke

7.2. Aurreiritzia eta estigma soziala

Estigmatizazioa: pertsona batek era errealean, ala besteen begietara, testuinguru zehatz batean identitate negatiboa ematen dion ezaugarri bat duenean (Crocker et al., 1998)


Estigmak euren **ikusgaitasun**aren (begi bistan hautemangarria) eta **kontrolgaitasun**aren arabera (estigma horren pertsonaren ardura, adibidez, droga menpekotasuna) sailkatzen dira.

Aurreiritzia eta estigmak pertsonengan **ondorio negatiboak** sor ditzakete **banakako mailan** (ad. Errendimenduan, autoestimurengan) talde mailan (ad. identitate sozial negatiboa) edo **gizarte mailan** (ad.gizarte bazterketa)

Erresilientzia: baztertze biktimek egokitzeko eta egoera jasateko duten gaitasuna. Ahultasunetan zentratu ordez, jasateko gaitasunera pasatzen dira pertsonak.

8. Gaia. Estereotipoak

Adibidea:



8.1. Estereotipoak (MORALES ET. AL, 2007, 214ORR.)

- Eskema kognitiboak dira
- Talde batek sortutako sinesmen partekatuak islatzen dituzte
- Energia aurrezteko balio dute
- Gizarte errealitatea azaltzen dute

8.1.1. Estereotipoen edukia: kanpo-taldeko ezaugarri positiboaz edo negatiboaz osatuta daude. Estereotipo batzuek talde arteko desberdintasunak (handituak) islatzen dituzte, baina beste batzuk guztiz gezurra dira

8.1.2. Estereotipoen osaketa → Mackie eta Kols-en arabera (1996) parte hartzen dute: Prozesu kognitiboek (ad. korrelazio engainagarria)

- Prozesu afektiboek
- Prozesu sozio-emozionalek (identitate soziala)
- Prozesu kulturelek

8.1.3. Estereotipoen jatorria → 1- Ikaskuntza soziala / 2-esperientzia pertsonala

Rol sozialek nola moldatzen dituzten estereotipoak

Faktore sozialek, ekonomikoek, politikoez eta historikoez rol sozialak sortu
Rol sozialak taldeei esleitu <i>Baserritar kaukasiarrek beraien ekoizpenak saldu hiri errusiarretan</i>
Taldekideek rolarekiko egokiak diren portaerak bideratu <i>Baserritarrek ahal duten gehien kobratu, batzuk aberastu</i>
Korrespondentzia soslaiaren bidez, rolari lotutako portaerak nortasunaren ezaugarriekin lotu <i>Baserritarrek asmo handikoak dira</i>
Taldeko estereotipoen formak <i>Kaukasiarrek asmo handikoak dira naturaz (berezkotasuna)</i>

8.1.3.1. Ikaskuntza Soziala

Estereotipoak familiarengandik, lagunengandik ala komunikabideetan ikas daitezke

Besteei so eginez ikasten dugu (ikaskuntza bikarioa) jaiotzen garenetik. Jadanik 5 urterekin haur gehienak arrazekiko jarrera definituak garatzen hasten dira

Zerk aktibatzen ditu estereotipoak? Begibistako seinaleek, taldearen bereizgarriek, gutxiengo-taldeek kide baten presentziak....

Zenbat eta gaitasun txikiagoa izan, orduan eta estereotipo gehiago erabiliko ditugu: erabaki azkarrak, denbora murriztua, informazio konplexua eta emozio negatiboak

Estereotipoak eta desberdintasun sozialak: Kanpo-taldeko kideek betetzen dituzten rolak betetzeko berebiziko gaitasuna dutela hautematea, eta hautemate hori indartzen joatea

Mundu justuaren sinesmena: bakoitzak merezi duena du: biktimak du gertatzen zaionaren erru

Talde etnikoak eta komunikabideak: Talde etnikoei buruz erabiltzen dituzten erretratuek eragina izango dute garatzen ditugun estereotipoengan

Gehienetan, gutxiengo etnikoak portaera desegokiekin lotzen dituzte, portaera horien gain irudikapena eskainiz (adibidez, lapurretak edota bortxaketak beti etnia jakinekin lotzea, intzidentzia etnia gehienetan berdina denean)

Genero estereotipoak eta komunikabideak: Mezu kontraesankorrak:

Emakume independenteak (telebista serieetan)

Iragarki komertzialak: objektu sexualak

Emakumeen gorputzak gizonezkoenak baino gehiago agertzen dira. Gizonezkoetan aurpegia azaltzen da gehiago